

ZABORTEGIAREN GAINBEGIRATZE TEKNIKOAZ ARDURATZEN DEN INGENIARITZA-ENPRESAREKIN (GEYSER) AZTERLAN TOPOGRAFIKOAREN EMAITZAK BALORATZEKOTAN ZEN VERTER AURREIKUSI EZINEZKO LUIZIA GERTATU ZENEAN

- ✓ Txosten topografikoa ikusi zuten teknikariek ezohiko egoera bat zegoela adierazi zuten, baina ez zuten identifikatu zabortegia edozein unetan amil zitekeela iradokitzen zuen zantzurik.
- ✓ Verterren ingurumen-baimen integratuaren arabera, enpresak Eusko Jaurlaritzari jakinarazi behar dizkio ezohiko egoerak, baina betiere egoeraren diagnostiko egokia eginda eta hartu behar diren neurriak proposatuta.
- ✓ Luizia gertatu baino ordu gutxi batzuk lehenago, azterlan topografikoaren emaitzak jaso eta gero, Geyserekin eta Verterrekin hurrengo egunean bilera bat egitea erabaki zuten, beste ingeniari espezializatu batzuekin, txostena *in situ* baloratzeko eta diagnostiko zehatza egiteko.

Zaldibar, 2020ko uztailaren 29a.- Zabortegiko istripu tamalgarria gertatu aurreko egunetan (gogoan izan dezagun arrakalak otsailaren 3ko arratsaldean identifikatu zirela, astelehenarekin, eta luizia otsailaren 6ko 15:00etan gertatu zela, ostegunarekin), Verter Recyclingek arduraz jokatu zuen. Erabakiak hartzeko orduan eskura zegoen informaziorik onena hartu zen oinarritzat, unean-unean zabortegiko egoera gainbegiratzen ari ziren barne eta kanpoko teknikarien txosten eta gomendioetatik ateratako informazioa, hain zuzen. Txosten eta gomendio horien arabera, guztiz aurreikusi ezinezko izan zen luizia, teknikari bakar batek ere ez baitzuen arrisku hori aipatu.

Horrela, pilaketan arrakalak agertu zirela jakin eta berehala (arrakalak agertzea ez da ezohiko gertakari bat zabortegi batean, eta ez du harreman zuzenik gero gertatutako luizi erraldoiarekin, are gutxiago metatutako zabor masa etengabe finkatzen ari den zabortegi batez ari garenean), Verter Recycling topografia-enpresarekin eta Geyserekin harremanetan jarri zen, azterlana egin zezaten. Otsailaren 4an egin zen (asteartea), eta emaitzak otsailaren 5ean (asteazkena) jaso ziren, arratsaldean. Ostegunarekin, otsailak 6, Geyserekin harremanetan jarri zen, emaitzen lehen irakurketa bat egin ostean, eta otsailaren 7an (ostirala) bilera bat deitzea erabaki zen, zabortegian bertan, zenbait ingeniari espezializaturekin, txostena *in situ* aztertzeko (luizia gertatzeko arriskuari buruzko oharrik egin balitz edo teknikariek arrisku hori identifikatu balute eginiko azterlanarekin, bilera ez zen leku eta ordu horretan deituko, agerikoa den moduan).

Ostiraleko bilera horren xedea diagnostiko argi bat egitea zen, neurriak hartu eta Eusko Jaurlaritzari egoeraren berri emateko, ingurumen-baimen integratua xedatutakoaren arabera.

Horri dagokionez, esan behar da zabortegia irekita egon den urte guztietan Verter Recyclingek Eusko Jaurlaritzari jakinarazi dizkiola hiru hilean behin egin diren txosten topografiko guztiak, urtero egiten diren ingurumen-zaintzako programen bidez, eta horietan ez dela inoiz ezohiko mugimendurik hauteman zabortegian. Jarduera horiek egiaztatu dituzte Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko ordezkariak.

Verter Recycling-en *online* jakinarazpenak: www.verter.eus

Informazioa: Arturo Zubiaga
Tel.: 94 415 86 42